



**SUB-BORRADOR**

S-B

## 2.MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua erosiiko duten bezeroen artean ez ditugu inolako ezaugarri finkoak ipini. Alde batetik, produktu hau erabiltzeko bezeroen adina ez da finkatua egongo, hasieran **ikasleentzat** zegoen pentsatuta gehien azpimarratzen dutenak direlako, adibidez, eskolan, unibertsitatean, akademietan,... baina **edozeinek erabili ahal du** azpimarratzeko joera badu. Produktua pentsatuta dago, azpimarratzean oker ohi diren pertsonentzako, hortaz, agian umeentzako edo nerabeentzat erabilgarriagoa izan daiteke.

Bezeroen klasearen aldetik klase guztientzat **eskuragarria** da ez duelako prezio garestirik, azpimarragarri arrunt bat bezalako prezio duelako, agian zentimo pare gehiago. Hau pentsatuta dago guztiok produktu hau eskuratu ahal izateko eta ez soilik klase zehatz batentzat.

Kulturaren aldetik, gure produktua berritzailea izanez gero **ez du kulturaz ulertzen**, edozein herrialdeko edo kulturako jendeak erosi ahal du edozein ezberdintasunak alde batera utzita. Salerosketari dagokionez herriko nahiz hiriko eremuetan salduko dira, bezero ohikoenak egoten direlako eta gure produktua behar duten bezeroak eremu hauetatik mugitzen direlako.



*hcsjuridica*



Eta azkenik, interesen edo gustuen arabera, esan dezakegu gure produktua ez dela soilik kolore jakin batean salduko, baizik eta kolore guztietan; horrela bezeroak aukeratu ahal izango du **kolore gama zabal** batean.